

Komunikazio Parte-hartzailea: Melel Xojobal kasua, Chiapas, Mexiko

Izaro Gorostidi Bidaurrazaga
EHUko irakaslea

Komunikazio parte-hartzaileari buruzko eztabaida akademikoa laurogeiko hamarkadan korrante bilakatu zen baina eztabaida horren funtsa, komunikazio parte-hartzailearen praktika gehiena, itzalean dago. Komunikazio parte-hartzailearen esperientziak Mendebaldeko teorian hain zabaldua dauden fikzio edo utopia adjektiboak ezabatzen ditu frogatuz komunikazioa eta informazioa batera joan daitezkeela, hartzailea igorlea bilaka daitezkeela eta alderantziz. Komunikazio-kanal berrien eraketa posible da, forma, hizkuntza, eduki eta hizkera propioak sortuz. Kasu-azterketaren bidez ikertutako komunikazio parte-hartzailearen proiektu baten ondorioak azalduko dira artikulu honetan.

The academic discussion about participative communication became a movement in the 80's, but the basis of that argument and most of the practice of participative communication is shadowy. The experiences of participative communication erase fiction and utopian adjectives, which are highly expanded in the western theory. This proves that communication and information can go together, the receiver can become the sender and vice versa. The creation of new communication channels is possible, creating own forms, languages, contents and speech. This article explains the outcomes of a participative project, investigated with case examinations.

1. Sarrera¹

Gaur egun, inoiz baino gehiago, Bestelako Komunikazioa matxinada-ekintza bat da: asperdura, hipokrisia, manipulazioa, merkatuaren diktadura, infantilismo eta gorrotoaren aurka altxatzen den errebolta horizontala eta demokratikoa (Ramirez de la Piscina, 2004).

Demokratikoa eta horizontala, horiek dira Komunikazio Parte-hartzailearen bi oinarri sendoak. Eredu demokratiko parte-hartzaileak egiazko informazio pertinentea exijitzen die hedabideei, baita gutxiengoaren eskubideak babestea eta bermatzea ere. Hedabide arruntek ez badute hori normaltasunez betetzen, gizabanakoen eskubidea eta betebeharra da komunikazio-kanal berriak sortzea.

Baina egia horren aurrean nahitaezko galdera agertzen da: utopia ala errealitatea?

Hedabideen papera gizartean aspaldiko eztabaida da. Zertarako balio dute hedabideek? Informazioa bideratzeko, komunikazioa sortzeko, eztabaida demokratikoa aberasteko... David K. Berlo-ren esanetan (1978:23) antzinako Grezian hasi zen komunikazioaren hausnarketa. Aristotelesek bere *Erretorika* liburuan argi utzi zuen komunikazioaren helburua limurtzea dela, hau da, igorleak egiten duen saiakera hartzaileak haren ikuspuntu berdina edukitzeko. Antzinako Greziatik gaur egun arte asko idatzi da komunikazioaren inguruan eta eztabaidaren oinarria komunikazioaren definizioan hasten da. Mario Kaplun-ek (1985:64) komunikazioa bi eredu ezberdinetan banatzen zuen: batetik, eredu monologikoa, igorle, mezu eta hartzailearen eskemari jarraitzen diona; bestetik, igorle, mezu, hartzaile eta horren erantzunean oinarritzen dena, elkarrizketarako irekia dagoen eredia hain zuzen ere.

Hainbat autorek hausnarketa ugari egin izan dute honen inguruan. Hans Magnus Enzensberger-en (1974:11) hitzetan, igorlearen eta hartzailearen arteko banaketak gizartean ageri den kontsumitzaileen eta ekoizleen arteko banaketari jarraitu dio, ezaugarri politiko garrantzitsu batekin, kontzientzia industria delako eta azken finean menderatzailearen eta menderatuaren arteko banaketa delako. Eta ildo berean doaz beste ikertzaile batzuen hausnarketak. Ohioko Unibertsitateko Nazioarteko Ikasketen zuzendari Joseph Rota-k (2001) adierazi du hedabideek balio dutela gizarte osoaren ahotsa entzuteko, gizarteko indarren arteko oreka mantentzeko eta garapen demokratikoa sostengatzeko, baina kontrolatzeko eta menderatzeko ere erabil daitezkeela.

Gainera, hedabideen pribatizazioak eta komertzializazioak —komunikazio-entresen bilakaera gero eta boteretsuagoak diren konglomeratu ekonomikoetan— eta komunikazioaren globalizazioak hedabideetan entzuten diren ahotsen murrizketa eragin dute, edukiak homogeneousatuz eta despolitizatuz eta komunikazio-irizpidea murriztuz.

Gaur egun ekonomiaren inguruan mugitzen gara eta komunikazioa ez da sare horren kanpo geratu. Ignacio Ramonet-en (1998:147) hitzetan, komunikazioa gaur

1. Komunikazio Parte Hartzailea: "Melel Xojobal" kasua (Chiapas, Mexiko). 2003ko azaroan defendatua. Zuzendaria: Jose Inazio Basterretxea.

egun salgaia da eta ikuspuntu horrek hedabideen papera aldatu du, hau da, gaur egun ez dute balio eztabaida demokratikoa aberasteko edo argitzeko. Neoliberalismoaren garaietan, enpresa pribatuak dira hedabide handi eta garrantzitsuen jabe eta komunikazioa beste merkatu bat da. Komunikazioa informazio-produktu bilakatu da, eskaintza eta eskariaren arauen menpe dago, eta ez gizabidezko edo irizpide etikoen menpe. Gaur egungo globalizazio-garaietan, eskema hau ia herrialde guztietan errepikatzen da. Salbuespenak badaude, Interneten sortu diren hedabide alternatiboak adibidez, baina Internet ez dago guztien eskura. UNESCOko zuzendari orokor ohi Federico Mayor Zaragoza-k dio (2001:43) informazioaren inguruan ezberdintasunezko beste horma bat eraiki dela. Estatu Batuek 135 milioi internet-erabiltzaile dituzte, Europak 82 milioi, Asiak 37 milioi, Japoniak 22 milioi eta gainerako herrialdeetan 43 milioi erabiltzaile daude bakarrik. Gaur egun eza-gutzen dugun herri globalizatu honetan, auzo boteretsu bakarra dago, munduko % 17k errekurtsoen % 83 dauka. Egoera honen aurrean informazio-kanal alternatiboak piztu egin dira, garapen demokratikoa lantzen duten hedabideak (irriti librean fenomeno aski ezaguna da Euskal Herrian), baina hedabideen erabilera demokratikoa orokorki murriztuta dagoela esan daiteke. Antonio Pasquali-ren (1979:48) hitzetan, bi baldintza nagusirengatik gertatzen da hau. Alde batetik, hedabideen jabetza monopolikoa edo oligopolikoa, eta bestetik, baldintza teknologikoak; mezuak emititzeko abantaila talde txiki baten esku dago, gehiengoaren adierazpen-eskubidea baztertuz. Baina orduan nola berreskura dezakegu komunikazioaren esentzia demokratikoa? Joseph Rota-k errealitate honen aurrean bi irtenbide ikusten ditu. Alde batetik, hedabide eta komunikazio-sistema demokratikoak garatzea, eta bestetik, publikoa trebatzea komunikazioaren prozesuan parte hartzeko. Rota-k berak gaur egun, eta Enszenberger-ek 70eko hamarkadan, proposamen hauek egin dituzte:

Enszenberger (1974:43):

Hedabideen erabilera errepresiboa

Kontrol zentralista
 Igorle bakarra, hartzaile asko
 Gizabanako isolatuaren gelditasuna
 Kontsumoaren aurrean abstentzio pasiboa
 Despolitizazio-prozesua
 Espezialisten produkzioa
 Jabe edo burokraten kontrola

Hedabideen erabilera emantzipatua

Programa deszentralizatu
 Hartzaile bakoitza, igorle potentziala
 Masen mobilizazioa
 Parte-hartzaileen elkarrekintza, *feedback*
 Ikaskuntza politikoaren prozesua
 Talde-produkzioa
 Erakunde autogestionatuen kontrol sozializatu

Rota (2001):

Gizarte demokratiko batentzat ezinbestekoa da komunikazio-aldaketa hau:

Kontrolpean izatetik	Erabilgarri izan behar den baliabidera
Zentralizatuta egotetik	Deszentralizatuta egotera
Jabetza burokratikoetik	Giza jabetzara
Larderiazko eruditik	Eredu demokratikora
Bide bakarretik	Bide bikoitzera edo anizkunerara
Bertikaltasunetik	Horizontaltasunera
Informatibotik	Parte-hartzailea eta elkarriketan jarduna izatera
Kanal itxietatik	Kanal irekietara
Teknikoa eta murriztua izatetik	Irekia eta ulerterraza izatera

Baina Martín Barbero-k (1987:41) dioen moduan, komunikazio-arazoen arloa ezin da teoria bakarretik mugatu, komunikazioaren giza praktiketarik baizik. Eta horretarako Mexikoko herrialde txiroenera, Chiapasera, joan gara hango gizar-teko baztertuek, indigenek hain zuzen ere, duten komunikazio-proiektua ikertzerara. Chiapasen hiru milioi eta erdi pertsona bizi dira. Horietako bi heren nekazari-giroan bizi dira. Erdiak ez dauka edateko urik eta bi heren drainatze-sistematik gabe bizi da. Baseri-giroan bizi direnen % 90ek gutxieneko diru-sarrerara du edo ez dauka diru-sarrerara finkorik.

Chiapasen urtero 14.500 pertsona hiltzen dira; Mexikoko heriotza-indizerik altuena bertan dago. Gaitzak sendagarriak dira kasu gehienetan: arnas infekzioak, enteritisa, parasitosis, paludismoa, salmonellosia, dengue sukarra, birika-mina, kolera, elgorria...


Bertan 300.000 indigena tzeltal, 300.000 tzotzil, 120.000 chol, 90.000 zoque eta 70.000 tojolabal bizi dira eta horietatik erdia analfabetoak dira.

San Cristobal de las Casasko elizbarrutiak Melel Xojobal erakundearen bitartez 1997ko urtarrilean martxan jarri zuen ikertutako komunikazio-esperientzia hau. Zergatik? Elizbarrutiko sinodoan hau irakur daiteke: «Botere politikoak eta giza hedabideek sarritan erabiltzen dituzten iruzurren aurrean eta zatitu gaitzaketen zurrumurruek gainditzeko, gure betebeharra ondo informatzea da, egia ezagutzen eta hitz egiten dutenekin. Egiarekin informazio maltzurra ezeztatu behar dugu eta, batez ere, gure bizi-testigantzarekin»².

Chiapasen 1994ko urtarrilaren 1eko altxamendu armatuaren ondorioz, intentsitate baxuko gerla bizi dute eta inkomunikazioa eta desinformazioa gerla-arma moduan erabili izan dira. Hitza hazitzat harturik, komunitate isolatu, txiki eta txiroetan bizi diren indigenek desinformazioaren eta inkomunikazioaren gerla-armari balak kendu dizkiote, beren komunikazio-kanalak sortuz eta komunikazioaren eskubidea eskuratuz. Beraien komunikazio-arma? Grabagailua eta audio-zintak. Batutakoarekin audio-zinta bat ekoitzi, "Nire Herriaren ahotsa" irratiko audio-zinta, eta beraien komunitateetan entzunaldi sozializatuen bidez, zinta entzun eta horren inguruan berba egin, solastatu.

Horren ondorioz galderak eta kezkak agertzen dira, hurrengo zintarako materiala lortuz.

2. San Cristóbal de las Casasko Elizbarrutia (1999): *III Sínodo Diocesano de San Cristóbal de las Casas, 246 kapitulu*, Pastoral Social, Comunicación, San Cristobal de las Casas.



Iturria: CIEPAC, Gizarte Ekintzarako Ikerketa Ekonomiko eta Politikoen Zentroa, 1998

Metodologia

Ikerketa hau aurrera eramateko kasu-azterketa erabili dut. Metodologia honen bitartez, batetik, posible da aktoreengana hurbiltzea eta, bestetik, beraien ekintzak ulertzea eta interpretatzea modu sakon eta hurbilago batean aztertzeo aukera dagoelako. Horrela miaketa sakona egin daiteke eta halaber teorien frogaketa eta taxuketa ere bai.

Ikerketa guztien arrazoa fenomeno baten edo batzuen deskribapena, azalpena eta interpretazioa egitea da. Jesús M. De Miguel (1996:45) ikertzaileak dioen moduan, deskripzio on bat azalpen desegoki bat baino baliagarriagoa da. Baieztapen horrekin kasu-azterketaren fidagarritasuna aldarrikatzen da, ikertzaile askoren kritiken aurrean. Ikertzaile askok erabili dute ikerketa-mota hau, esate baterako, Weber eta Durkheim soziologoek berek metodologia-mota hau erabili zuten ezaguera soziologikoa sortzeko.

Komunikazio parte-hartzailearen inguruan ikerlan bat egiteko, kasu jakin bat aztertzea izan da lan honen helburu giltzarria. Hots, komunikazio-mota honen prozesu osoa azaltzea eta ondorioak ikuspuntu praktiko batetik ateratzea. Esperientzia jakin batetik, komunikazio parte-hartzailearen jadanekotasuna frogatzea. Honezkero jakina denez, lan honetan ikertu den kasua Chiapasko estatuan, Mexikon, kokatzen da. Arrazoi bat baino gehiago izan da kasu jakinaren bila hara hurbiltzeko.

Batetik, Latinoamerika izan delako komunikazio parte-hartzailearen esperientzia askoren sorburua. Kalitate eta kopuru aldetik Latinoamerika aurretik doa komunikazio parte-hartzailearen esperientzietan, bertan egin diren askotariko prozesu ugarietarako.

Bestetik, komunikazio parte-hartzailearen premisa teoriko oso garrantzitsu bat bertan aurki daitekeelako. Komunikazio-prozesu honetan gutxiengoaren eskubideak babesten eta bermatzen dituen komunikazio-esperientzia bat aztertu izan da. Ikertutako kasu jakina Chiapasko indigenek egiten dutena da. Beraiek gizarte-komunikaziotik baztertuak eta ezabatuak izan dira, baina beren esparru komunikatibo propioa eraiki dute: ikerketa honetan azaltzen dena.

Ikerketa hau aurrera eramateko zenbait lan-tresna erabili dira. Proiektu honen osotasuna ezagutzeko baliabide anitzekin jokatu behar izan da. Sorrera, zergatia, produkzioa nola egiten den, produktua, komunitateetan daukan eragina eta sortzen diren komunikazio-prozesu independenteak aztertu behar ziren, ondorio fidagarriak lortzeko. Horretarako ikerketa-tresnak lau multzotan banatu dira.

A. Elkarrizketa sakonak

A.1. Sorburuaz arduraturik

Melel Xojobal erakundeak komunikazio parte-hartzailearen proiektu hau 1997ko urtarrilean jarri zuen martxan. Erakunde hau San Cristobal de las Casasko elizbarrutiak jarri zuen martxan, komunikazio-eragileak trebatzeko komunitate indigenetan. Proiektu honen sustraia ulertzeko bi sortzaileak elkarrizketatu dira. Bata, Raul Vera, une hartan gotzainaren laguntzailea zena eta, bestea, Pablo Romo San Cristobal de las Casasko elizbarrutiko apaiza. Bi gizon hauei elkarrizketa sakona egin zaie, proiektuaren sorreraren zergatia eta garrantzia ulertzeko.

A.2. Emaizaz eta produktuez arduraturik

Proiektu honek hainbat helburu lortu nahi ditu, baina garrantzitsuena indigenek berezko komunikazio-ereduak eraikitzea da. Helburu horren lorpena aztertzeko bi komunitatetara joan behar izan da eta jada Melel erakundearen proiektutik at dauden komunikazio-eragileak elkarrizketatu dira. Elkarrizketatuak Melel Xojobaleko eragileak izan ziren eta komunikazioan trebakuntza jasan ondoren, berezko komunikazio-ereduak jarri dituzte martxan. Elkarrizketa sakona egin zaie, martxan jarri duten eredia ulertzeko eta trebakuntzaren garrantzia aztertzeko.

B. Erabiltzaileentzako elkarrizketak

Bi komunitate hartu dira aztergai, proiektuaren barnean zeudenak eta komunikazio-eragileak zeuzkatenak. Bata mendian, Los Altos gunean “La Grandeza” izeneko komunitatea eta, bestea, Lacandona oihanean “El Avellanal” izenekoa. Bi komunitate horietan, bakoitzean, ehun bat inkesta banatu diren arren, hamalauk bakarrik erantzun dute. Eraitza horren arrazoia planteamenduan bertan zetzan; izan ere, komunitateko kiderik gehienak analfabetoak dira edo irakurtzen jakinda ere, oso harreman kolateralak dute era honetako inkestekin. Beraz, hurrengo saia-kera grabagailuarekin egitea izan da, ahozko elkarrizketak alegia. Baina aparatuak berak ere beldurtzen zituen, presio eta errepresio politikoak eragin handia du jendearengan. Beraz, azkenean grabagailu barik egin nituen elkarrizketak.

Indigenek mesfidantzaz hartzen dituzte atzerritarrak, batez ere arraza zuriko jendea. Giza tentsio izugarria bizi da Chiapasen eta horrek elkarrizketak grabagailu barik egitera behartu ninduen, “lekukorik gabe” errazago ireki ziren.

D. Behaketa parte-hartzailea

Bost hilabetez, 2002ko abuztutik abendura, komunikazio-proiektu indigenen barnean lan egin nuen, ikertzaile- eta kazetari-lana batera eginez. Beraiekin egunerokotasunean arituz ikerketaren baliotasuna handitu nahi nuen, proiektu honen fidagarritasuna bertan murgilduta egonda ziurtatzeko eta komunikazio parte-hartzailearen osotasuna neure begiz egiaztatzeko. Horretarako audio-zintan ekoizpenen prozesu osoan parte hartu nuen.

Bi hilerik behin komunitateetako komunikazio-eragileak San Cristobal de las Casasen biltzen dira, beraien komunitateetan lortutako informazioa audio-zintetan grabatuta ekartzen dute eta Melel Xojobaleko bi kazetarien laguntzaz, audio-zinta bat ekoizten dute guztien materialarekin, gero beraien komunitateetan banatzeko, entzunaldi sozializatuak egiteko, irratia balitz bezala. Atal bakarra, albisteak, bilera hauetan egiten da. Melel Xojobaleko kazetariak, ni barne, bi hilabeteetan gertatutako informazioaren laburpena azaltzen diete eta beraiek albisteak aukeratzen dituzte zintaren barnean sartzeko. Kontuan eduki behar da, komunitateetara oso informazio gutxi heltzen dela eta heltzen dena oso manipulatu dagoela.

Nire egonaldian hirutan bildu ginen audio-zinta ekoizteko, ekoizpenean kazetari moduan lan egin nuen beraiekin batera.

1. 2002ko abuztuaren 29 eta 30ean egindako tailerra.
2. 2002ko urriaren 24 eta 25ean egindako tailerra.
3. 2002ko abenduaren 5 eta 6an. Egindako tailerra.

Gainera beraien komunitateetan zeudenenean ere bisitatu nituen, beraien lana hobeto ezagutzeko eta bertan zeukan eragina ikertzeko. Hango jendearekin elkarrizketatu nintzen eta bi komunitateetan zintan “entzunaldi publikoan” egon nintzen. Komunitateko jendea elizan biltzen zen zintak entzuteko eta aditutakoari buruz berba egiteko. Horrela, prozesu osoan parte hartu nuen, ikerketa osotasunean betetzeko.

E. Dokumentuak

Ikerketa hau aurrera eramateko, bibliografia ezberdina erabili dut. Batetik, EHUko liburutegian aurkitutako liburuez baliatu naiz. Bestetik, UCABen, Unibersidad Católica Andrés Bello (Venezuela), maisu den Jose Ignacio Rey-k helarazi zizkidan dokumentuak, tesina bat barne. Gainera Venezuelan komunikazio parte-hartzailearen inguruan lan egiten duten gizon- eta emakume-talde batzuk ezagutu nituen, Guarura taldea adibidez, eta haiekin edukitako elkarriketetan informazio garrantzitsua lortu nuen ikerketa martxan jartzeko.

Interneten bitartez ere bibliografia lortu dut, batez ere komunikazio parte-hartzailearen hainbat esperientziaren informazioa.

Ikerketa aurrera eramateko hipotesi hauekin lan egin nuen:

1. Komunikazio parte-hartzailearen bidez sortzen den informazioak ez dauka botere politiko eta botere ekonomikoen eraginik. Komunikazio-prozesu honetan parte hartzen dutenak sortutakoaren jabe dira. Entzuleak helburu eta jatorri bilakatzen dira, hartzaile bakoitza, igorle potentziala da. Hedabideak kontrolatzen dituzten eragin-taldeak komunikazio-mota honetatik at geratzen dira.
2. Komunikazio-eredu hau irekia eta ulertteraza da, parte hartzen dutenek sortzen dutelako. Beraien komunikazio propioa egiten dute, edukiak, hizkera eta azaltzeko era beraiek aukeratzen dituzte; beraien ahotsak hitz egiten du beraien hitza plazaratuz. Modu horretan egokitasunezko harremana sortzen da eta elkarriketa suspertzen da.
3. Komunikazio parte-hartzailearen bidez komunikatzaileen giza papera berreskuratzen da. Komunikazio-mota honek herri-zerbitzua betetzen du parte hartzen dutenen kezka eta galderak agertzen direlako eta horiei erantzuten saiatzen delako. Gainera, sortzen diren arazoak kontuan edukitzen dituzte, konponbide bat aurkitzeko ahalegina eginez.
4. Komunikazio-eredu honek gutxiengoaren eskubideak babesten eta bermatzen ditu. Gizarte-komunikaziotik baztertuak eta ezabatuak izan direnei beren esparru komunikatibo propioa eraikitzen laguntzen die, komunikazio-prozesu autonomoak eraikiz.

Proiektua


Lan honetan ikertu den Melel Xojobal erakundearen proiektua hiru ardatz nagusitan banatzen da:

1. **Tailerrak.** San Cristobal de Las Casasen egiten dira bi hilabeterik behin. Bertan eragileek beren komunitateetan jaso duten informazioa aurkezten dute eta edukiak landu ondoren, audio-zinta bat ekoizten da.
2. **Audio-zinten entzunaldiak.** Eragileek ekoiztutako audio-zinta beren komunitateetara eramaten dute eta entzunaldi sozializatuen bidez, solasaldiak sortzen dira, galderak eta kezka plazaratuz eta talde-hausnarketa landuz.

Aztertutako bi kasuetan, entzunaldiaren ondoren berriz ere informazioa biltzen hasten dira hurrengo zintarako. Kasu batean, entzunaldiko bileran bertan hasten dira lan hau egiten.

3. **Komunitateetan egiten den lana.** Bi komunitate aztertu dira komunikazio-eragileen lana ezagutzeko. Bi hilabetetan informazioa biltzen dute, zenbait genero landuz. Sortutako lana San Cristobal de las Casasen egiten den tailerrera eramaten dute, bertan egiten duten audio-zintan ipintzeko.

Ikus daitezkeen moduan, prozesua zirkularra da, hiru atalak elkarri lotuta daude.




A. Komunitateetan egiten duten lana

Chiapasko komunikazio-eragileek bi hilabetez beren komunitateetako hitza batzen dute, genero hauetan: albisteak, elkarrizketak, komunitatearen hitza, irratidramatizazioak, hausnarketarako galderak eta abestiak. Komunitateetan egiten den lana zinta baten entzunaldi publikoaren ondoren hasten da. Audio-zintaren entzunaldi publikorako egiten den bileran, komunikazio-eragileak hurrengo zintarako dituen proposamenak egiten ditu eta bere komunitateko jendearen proposamenak, galderak eta kezkek jasotzen ditu ere.

Horrela, gutxieneko akordio bat lortzen dute eta data bat zehazten dute lan hori egiteko. Bildutako jendearen artean erabakitzen da nortzuek hartuko duten parte informazio hori lantzen eta gehienetan pertsonen aldaketarik ez da gertatzen, hau da, hasieratik parte hartu dutenek jarraitzen dute lan hori egiten nahiz eta parte hartzea irekia den eta komunikatzaileen artean aldaketak egin daitezkeen.

Aipatu behar da lan-eredu hori ez dela beti horrela betetzen. Eragileen lana aldakorra izan daiteke: uzta batzeko garaia (komunitatean jende gutxiago dago eta denbora gutxiago komunikazio-lana egiteko), arazo politikoak, sozialak, bilerak, batzuetan udal-erri-mailakoak...

Aztertutako audio-zinta baten koadroa, 28 minutu eta 37 segundoko iraupena daukana:



Audio-zinten materiala lantzeko erabiliko diren generoak eta bakoitzak eduki behar duen iraupena, ez dira inoiz aurreikusten. Ez dago inolako aurre-antolaketa-rik. Zinta osoaren iraupena finkatu barik dago. Iraupena lortutako materialaren eta eragileek aukeratutakoaren arabera zehazten da.

Aztertutako hiru audio-zintek iraupen desberdina daukate eta erabilitako generoen iraupena zinta batetik bestera aldatzen da. Zinta hauek ekoizteko orduan formari ez zaio inolako garrantzirik ematen. Ekoizpenaren funtsa, edukian dago. Zintaren eraketa edukien arabera lantzen da. Hasteko edukia aukeratzen da, gaia. Gero aukeratuko da erabiliko den forma: elkarrizketa, irrati-dramatizazioa, abestia...

Generoak beraien erara lantzen dituzte, beraien forma ezarriz. Aztertutako audio-zinta bateko elkarrizketa, jatorrizko hizkuntzan:

- Buenas tardes compadre.
- Muy buenas tardes compadre.
- Pase adelante compadre.
- Si compadre, gracias.
- Siéntate, compadre.
- Gracias, compadre.
- ¿Qué deseabas, compadre?.
- Te vine a entrevistar un rato sobre el ejercito, como lo ves que esta pasando en nuestra región.
- Que bueno, compadre que viniste a pasear. Mira compadre, no estoy de acuerdo con lo que esta haciendo el ejercito. Estos meses que esta pasando en nuestra región, es que el ejercito está sacando madera sin permiso y están tumbando árboles en los cafetales y cortando leñas en nuestros derechos y patrullando cada día y también tiran envases en los arroyos donde toman y beben los campesinos, están llegando muchas prostitutas en el campamento del ejercito. Y a veces llegan los niños a ver que lo que hacen y tiran condones en el arroyo y violan algunas mujeres en

las comunidades y tienen familia de ejercito y también anda patrullando el helicóptero todo día. Es toda mi palabra compadre.

- Gracias por tu información compadre.
- Que le vaya bien compadre.
- Gracias, compadre.

B. Tailerrak




Grabatutako materialarekin Melel Xojobalen egoitzara joaten dira San Cristobal de las Casasera. Bertan, komunikazio-eragile bakoitzak daukan materiala erakusten du eta denon artean ekoitziko duten audio-zintan ipiniko duten materiala aukeratzen dute. Gainera, bakoitzak jaso dituen kezka plazaratzen dituzte, hurrengo zintarako gai-proposamen bilakatuz.

Tailerrek bi eguneko iraupena dute eta erabilitako metodologia ez da aldatzen, tailer guztietan berdina errepikatzen da. Aldakorra den gauza bakarra edukiak dira, unean uneko egoeraren arabera edo eragile bakoitzak ekarri duen informazio eta galdera edo kezka arabera.

Tailer hauetan lau eragilek hartu zuten parte, Chiapasko zenbait lekutatik etorriak:

IZENA	KOMUNITATEA	UDALERRIA	GUNEA
Felipe	La Grandeza	Amatenango del Valle	Los Altos
Alberto	El Avellanal	Ocosingo	Lacandona oihana
Andres	San Roque	Tapilula	Zoque
Martin	San Isidro Ocotal	San Cristobal	San Cristobal

Lehenengo eguna: Sorkuntza-lana



1. Abiapuntuzko bilera

Bilera bat egiten da, lau eragileen eta Meleleko hiru kazetariren artean, ikertzailea barne. Eragileek, Melelen eskutik jasotako grabagailu bana eta audio-zintak dauzkate, beren komunitateetako hitza grabatzeko. Informazio guztia beraien audio-zintetan gordeta ekartzen dute. Abiapuntuzko bilera honetan eragileek ekarri duten materiala azaltzen dute:

- A. Beren komunitateetan grabatu duten informazioa.
- B. Beren komunitateetan jaso dituzten galderak eta kezka.

A. Grabatutako informazioa

Eragile bakoitzak informazioa ekartzen du genero ezberdinak erabilia. Bakoitzak bere materiala azaltzen du, grabatutakoaren zergatia komentatuz. Informazioa biltzeko orduan, unean-unean bizi duten errealitatea da kontuan daukaten faktore bakarra; komunitate bakoitzak dituen informazio- eta komunikazio-beharrak. Hots, komunitateetako jendeak aukeratzen du gaia. Salbuespen bakarra dago: San Cristobalen egindako tailerrean eragile batek gai espezifikoki bati buruz hitz egitea eskatzea. Hori gertatzen bada, eragileak bere komunitateko kideei zabaltzen die eskaera eta eskaera horri erantzuna ematen saiatzen dira.

B. Komunitateetan jaso dituzten galderak eta kezak

Bilera honetan eragile bakoitzak bere komunitateetan jaso dituen kezak eta galderak plazaratzen ditu. Guztion artean erabakitzen dute hilabete horretako audio-zintan erantzutea ala hurrengo audio-zintarako lagatzea.

2. Edukien zerrendatzea

Promotore bakoitzak ekarri duen informazioa azaldu ondoren, denon artean erabakitzen da audio-zintan zer ipiniko den. Meleleko kazetariak begirale eta laguntzailearen papera betetzen dute, zintaren edukien hautaketa eragileen esku dagoelako.

Horrela, talde-lana egiten da, hots, hemen ez dago inolako editorerik, ez dago zuzendaririk, laurok betetzen dute lan hori; batez ere beren komunitateetan jaso dituzten kezken eta arduren arabera aukeratzen dituzte edukiak.

Hautaketa hau ekarritako materialarekin egiten da. Albisteak ez dira hautaketa honetan sartzen, atal hau, geroago azalduko dudako moduan, Meleleko kazetariekin lantzen delako.

3. Edukien lanketa

Lehenengo egunaren goiza lan bi horiek egiten igarotzen da. Bazkaldu ondoren, albisteak lantzen dira. Meleleko kazetariak azkeneko tailerretik ordura arte izan diren albiste nagusien txostena eginda daukate. Txosten horretan hainbat albiste lantzen dira:

1. Chiapasen gertatuko albisteak.
2. Mexikon gertatuko albisteak.
3. Munduan gertatuko albisteak.

Albisteak lantzerakoan, kazetariak, indigenengan eragina edukiko duten gertakariak garrantzia ematen diete. Munduan gertatutakoa ere kontuan edukitzen da baina beti indigenengan edukiko duen eragina kontuan hartuta.

Albiste horiek azaltzen dizkiete kazetariak eragileei, gertaera kokatuz, balizko zergatiak azalduz, eratoritzen dena aztertuz... Hau da, albistea osotasunean aztertzen da, ez da informazio hutsa azaltzen. Azalpenak entzun ondoren, promotoreek audio-zintan ipiniko diren albisteak aukeratzen dituzte eta idazten dituzte, kazetariak laguntzarekin.

Beraien komunitateetatik ekarritako albisteak ere atal honetan lantzen dira. Adierazgarria da kutsu katolikoa nabaria dela audio-zinten edukietan, albisteetan ere.

Aipatu behar da, ikertzaileak lan egindako denboran parte hartu zuten lau eragileek jada urtebete zeramatela proiektuaren barne. Jasotako informazioaren arabera adierazi behar da eragile berri bat hasten denean, gainerako eragileen laguntza edukitzen duela eta kazetari baten laguntasun berezia, erabiltzen diren komunikazio-tresnak azaltzeko: albisteak nola idatzi, elkarrizketa bat nola egin, irrati-dramatizazioen erabilera...

Bigarren eguna: hausnarketa-lana

Goizean goiz materialari erreposoa egiten zaio. Eragileek idatzitako albisteak irakurtzen dituzte, beraien kideen kezka eta kritikak entzuteko. Horrela denon artean berrikusita eta finkatuta uzten dira grabaziorako. Gainera atal bakoitzeko sarrerek lantzen dira eta aukeratutako materiala berrikusten da.

Audio-zinten ekoizpena Melelen egoitzan egiten da, bertan dagoen ordenagailuaren bidez. Baina ikertutako hiru tailerretan ezinezkoa izan zen modu horretan egitea, erabiltzen zen ordenagailua puskatu egin zelako. Horregatik, soinu-teknikari baten estudioan egin ziren grabazioak.

Melel Xojobaleko kazetariak bi hilabeteotan gertaturiko albisten laburpena ematen diete eragileei. Beraiek aukeratzen dituzte zintan ipiniko dituzten berriak beti galdera garrantzitsu baten atzean: nolako eragina dauka albiste honek geugan, Chiapasko indigena tzotzil, tzeltal, tojolabal, chol eta zoqueongan? Edukiak aukeratu ondoren, audio-zinta ekoizten dute ordenagailu eta tekniko baten laguntzarekin. Kopiak ateratzen dira eta bakoitzak kopuru bat hartzen du bere komunitatean banatzeko. Gainerako audio-zintak San Cristobal de las Casasko elizbarrutiko beste erakunde bidez banatzen dira. Aztertutako kasu guztietan elizan batzen dira entzunaldi sozializatua egiteko, solasaldia, galderak, kezka eta hausnarketa sustatuz.

C. Audio-zinten entzunaldiak

Entzunaldi publikoak bi hilerik behin egiten dituzte, komunikazio-eragileek egindako deiari erantzunez. Komunitateko elizan biltzen dira eta audio-zinta entzun ondoren, solasaldiari ekiten diote. Audio-zinta entzun ondoren galderak eta kezka sortzen dira, gogoeta kolektiboa sustatzeko. Audio-zintetan entzundakoa hausnarketa sakon baten sorburua izan zen bi kasuetan.

Komunitatea	Jende-kopurua					Entzunaldian erabilitako hizkuntza
	Emakumeak	Gizonak	Neskatilak	Mutikoak	Guztira	
La Grandeza	15	13	6	2	36	Tzeltala
El Avellanal	1	35	1	6	43	Tzeltala

Komunitatea	Parte-hartzea		
	Galderak eta kezka	Solasaldia	Hausnarketa
La Grandeza	Bai	Bai	Bai
El Avellanal	bai	Bai	Bai

Ikertzaileak aztertutako bi kasuetan tzeltal hizkuntza erabili zuten beraien artean hitz egiteko. Batzuen kezkak ildo horretatik zetozen, gaztelania ez zutenez ondo ezagutzen, ez zuten osorik ulertu entzundakoa. Baina ikertzaileak galdetu zienean ea ez ote zuten nahiago zintak beraien hizkuntzan egitea, erantzuna kolektiboa izan zen:

Ez, etsaiaren hizkuntza ezagutu behar dugu ondo defendatzeko³.

Melel Xojobalen proiektuak hainbat helburu ditu, baina garrantzitsuenetarikoa bat komunitate indigenen autonomia-prozesuak laguntzea da, beraien komunikazio-eredu propioak eraikitzeko. Hau da, komunikazio-eragileak trebatu, gero haiek beren komunikazio-ereduak lantzeko, bakoitzaren komunitatearen beharren arabera. Helburu horren lorpena aztertzeko bi komunitatetara joan nintzen eta jada Melelen proiektutik at dauden komunikazio-eragileak elkarrizketatu nituen. Elkarrizketatuak Melel Xojobaleko eragileak izan ziren eta komunikazioan trebatu ondoren, berezko komunikazio-ereduak jarri dituzte martxan.

Ikertzaileak bi kasu aztertu zituen eta bietan aski frogatuta geratzen da, ezen Melelen jasotako trebakuntzak eta audio-zintekin egindako lanak, geroago beraien martxan jarritako komunikazio-prozesuak bultzatu dituztela.

Melelek eman zigun trebakuntzarekin begiratzen ikasi dugu. Burua ireki zigun eta bidea zabaldu zigun (...) Melelek lagundu gaitu eta eragina eduki du gure komunitateetan. Komunitatearekin lan egiten denean konturatzen zara zer den balio duena eta ez duena balio eta guk Melelen jasotakoarekin ikusi dugu gure komunikazio-era irudiak direla⁴.

José Velez-ek bi urtez Melelen lan egin ondoren ikusi zuen bere udalerrian derrigorrezkoa zela komunikazio-proiektu bat martxan jartzea. Bere hitzetan, bertan ez zegoen inolako komunikaziorik eta bizi zuten egoera hain larria izanik, komunikazio-prozesu bat sortzea derrigorrezkoa zen. Las Margaritas izeneko udalerrian tentsio-egoera handia bizi da, militarrez eta polizia josita dago. Udalerrian honetan "La Realidad" zapatisten gunea kokatuta dago eta EZLNren komandantzia bertan bizi bide da.

José Velez-ek hamahiru komunitateren arteko proiektua jarri du martxan. Hiru hilerik behin berak trebakuntza-tailerra ematen die hamahiru komunitate horietako komunikazio-eragileei eta bakoitzak bere komunitatean egiten du lan. Hilero egiten diren batzar orokorretan beren lana eskaintzen diete komunitateko kideei. Irudien bidez, komunitateetan gertatzen dena azaltzen dute. Lana modu honetan antolatzen dute:

1. Hasteko daukaten informazioa aztertzen dute, analisi sakona eginez.
2. Horrekin irudia marrazten dute.
3. Batzarretan erakusten dute.

3. Chiapasko "El Avellanal" komunitatean erabiltzaileentzako elkarrizketen bidez lortutako informazioa.

4. José Velez-i Santa Elena komunitatean egindako elkarrizketa sakonaren bidez lortutako informazioa.

Irudien bidez jendeak albisteak ulertzen ditu eta eragileek azalpenak ematen dituzte ere.

Militarren errepresioa daukagunean, segurtasun publiko itzela dagoenean, automobil bat murrizten dugu eta autoaren alboan jendea eta horrela komunitateetan ikusten dute, eta ikusten dutenean ulertzen dute eta azalpenak behar badituzte eskatzen dituzte. Pentsa esazu galdera bat botatzen dugula, zer ari da gertatzen komunitatean? Erantzuna irudikatzen dugu, lehortuta dagoen zuhaitz bat edo zuhaitz berde eta osasuntsu bat, gertatzen ari denaren arabera eta horrekin jendeak badaki zertaz ari garen⁵.

Ondorioak

Komunikazio parte-hartzailearen proiektu honetan egiazko informazio pertinetza eskaintzen da. Hedabideetan, oro har, eragin-taldeek erabakitzen dute zer eskaini, zertaz hitz egin. Aztertutako kasu honetan, hartzailerek igorleei esaten diete zertaz nahi duten hitz egin eta gainera beraiek igorle bihurtzen dira kasu askotan.

Proiektu honetan parte hartzen duten indigenek beraien komunikazio-prozesu propioa eratu dute, beraiek erabakitzen dute zertaz hitz egin eta nola azaldu. Proiektu honetan parte hartu zuen eragile baten hitzetan:

Idea jendearekin joatea da, jendeak esan dezala nahi duena, hedabideak gobernuarenak direlako. Guk albistea herriko jendearen ahotsarekin ateratzen dugu⁶.

Hartzailerek entzuten duten informazioan sinisten dute, beraien hitza bertan antzematen dutelako.

Entzuten duguna informazio argia da eta gainera komunitate beretik ateratzen da. Beste hedabideek goian dagoena kontatzen dute, behekoa estaliz. Airetik doana kontatzen dute eta ez lurpean dagoena, eta sustraian dago mamia⁷.

Proiektu honetan parte hartzen dutenak beraien komunikazioaren jabe dira. Edukian dago komunikazio-proiektu honen funtsa, horren inguruan lan egiten dute, beraiek hautatutako eran eduki hori lantzeko. Eta beraiek erabakitzen dituzte edukiak; beraien kezka, galdera eta hausnarketan ondorioz sortuak direlako.

Komunikazio-proiektu honetan, oro har, “feed-back” efektua garatzen da; komunikazio-prozesua zirkularra da, ez dago norabide bakarreko linealtasunik. Audio-zintak entzun ondoren proposamenak egiten dira eta posible bada proposamen horiek hurrengo audio-zintarako lantzen dira. Komunitateko jendeak egiten du hori, abestien bidez, elkarrizketen bidez edo irrati-dramatizazioen bidez. Beraiek sortzen dute beraien komunikazioa. Gainera, komunikazio-eredu hau irekia eta ulerterraza da, parte hartzen dutenek sortzen dutelako. Ez da bakarrik kanal berrien eraketa, hizkuntza berrien eraketa ere, giza taldeak beraiek

5. *Ibidem*.

6. José Velez-i Santa Elena komunitatean egindako elkarrizketa sakonaren bidez lortutako informazioa.

7. Chiapasko “El Avellanal” eta “La Grandeza” komunitateetan erabiltzaileentzako elkarrizketen bidez lortutako informazioa.

aukeratutako eran mintzatzen direlako. Beraien komunikazio propioa egiten dute, edukiak, hizkera eta azaltzeko era beraiek aukeratzen dituzte; beraien ahotsak hitz egiten du beraien hitza plazaratuz. Modu horretan egokitasunezko harremana sortzen da eta elkarrizketa suspertzen da. Aztertutako kasuan, edukiak lantzeko erabili behar diren formak “hartzaile-igorleek” erabakitzen dituzte. Beraiek aukeratutako hizkeran eta hizkuntzan adierazten dira.

Irrati-dramatizazioekin kideek kontaktzen digutena argiago ulertzen dugu, errazagoa da guretzat hitza entzutea eta ulertzea. Kide batek beste bati egindako galdera entzuten dugu eta erantzuna, horrela hobeto ulertzen dugu⁸.

Oro har, erabilitako tresnek elkarrizketa suspertzen dute, elkarrizketan oinarritzen direlako. Aztertutako audio-zintetan hausnarketarako galderen atala ageri da. Atal honekin entzulea hausnarketara zabaldu nahi dute, gogoeta praktikora bultzatu. Gehienetan entzunaldi publikoetan sortzen direnez, proposamen hauen bidez, taldeko elkarrizketa sortu nahi dute komunitateetan garrantzia daukaten gaiak plazaratuz. Solasaldia sortzen da. Entzulea hitzun bilakatzen da audio-zinta entzun ondoren. Komunikazio parte-hartzailearen bidez komunikatzaileen giza papera berreskuratzen da. Komunikazio-mota honek herri-zerbitzua betetzen du parte hartzen dutenen kezka eta galderak agertzen dituelako eta erantzuten saiatzen delako. Gainera gertatzen diren arazoak kontuan edukitzen dituzte, konponbide bat aurkitzeko ahalegina eginez.

Komunikatzea ez da bakarrik zuzenean informazioa ateratzea, edo beste komunitate batera joatea informazio bila, arazorik badagoen ezagutzera... baita komunitatea egiten dagoena ezagutzea, komunitatearen barnean sareak sortzen saiatzea, gero biltzeko eta arazoei buruz berba egiteko. Hori da guk hemen erabiltzen dugun era. Biltzen gara, hitz egiten dugu, gaiak aztertzen ditugu eta gero komunitaterako hitza ateratzen dugu⁹.

Pentsa dezagun bi komunitateren artean arazoak daudela, erlijio-arazoak hedabideen hitzetan. Baina pentsa dezagun arazoa ez dela erlijioa, barrutik barrenean hor eragina edukitzen ari den zerbait dagoela. Orduan, gu, hor eragina daukan hori bilatzen saiatu behar gara, azalarazi eta besteei azaldu, zergatik hori ari den ateratzen, nolako eragina daukan gudan eta konponketarako hausnarketara bultzatu¹⁰.

Komunikazio-proiektu honetako audio-zintetan mota honetako galderak entzun ditzakegu: “zer egin dezakegu egoera honen aurrean? zer egin behar dugu egoera hau gainditzeko?” Komunikazio-proiektu honen bidez, jatorrizko giza komunikatzailearen esentzia berreskuratzen da, edo behintzat, berreskuratzekeo saiakera egiten da. Komunitatetik ateratzen den hitzak bertan diren arazoak plazaratzen ditu. Horrela, komunitateko kideak problema horiei aurre egiteko formen hausnarketara bultzatzen ditu. Komunikazio-eredu honek gutxiengoaren eskubideak babesten eta bermatzen ditu. Gizarte-komunikaziotik baztertuak eta ezabatuak izan direnei beren esparru komunikatibo propioa eraikitzen laguntzen die, komunikazio-prozesu autonomoak eraikiz.

8. *Ibidem*.

9. José Velez-i Santa Elena komunitatean egindako elkarrizketa sakonaren bidez lortutako informazioa.

10. *Ibidem*.

Oraindik badirudi ez ditugula begiak eta ahoa zabaltzen, baina jada ez gehiago, orain ahotsa daukagu eta ona da kideen ahotsa entzutea, zer gertatzen ari den jakiteko¹¹.

Chiapasko indigenak gutxiengoa eta, gainera, txiroak dira; gizartetik at daude, marjinatuta daude. Asko isolatuta bizi dira, mendian eta batez ere oihanean. Baina beraiek bere komunikazio-prozesu propioa eraiki dute, eta ez hori bakarrik, ikerketa honetan adierazten den moduan trebakuntza jasotako pertsonak beste komunikazio-prozesuak sortzen ari dira, beraien udalerrien beharren arabera. Melel Xojobalen komunikazio-proiektu honek gizarte-komunikaziotik baztertuak eta ezabatuak izan direnei beren esparru komunikatibo propioa eraikitzen laguntzen die, komunikazio-prozesu autonomoak sortuz.

Irratian entzun nuen Amatinango-ko herrian gertatutako heriotza, ehiza-istripu bat izan zela eta audio-zintan paramilitarren erailketa bat izan zela diote. Gobernuaren informazioa kideen ahotsaren aurrean¹².

Komunikazio parte-hartzaileak informazioaren inposaketari egiten dio aurre. Herriak berak dauka hitza, herria mezuaren igorle eta hartzaile bilakatzen da, bere baitan sortzen delako, komunikazioa beraiena delako. Alfonso Gumicio Dragon-ek (2001) dioen moduan, komunikazio parte-hartzailearen praktikak beren bizi-historia berreskuratzen laguntzen die munduko komunitate oso txiroetan bizi diren pertso- nei, beren baztertze, txirotasun eta diskriminaziozko egoera aldatzen hasteko.

Komunikazio parte-hartzailea hainbat formatan adieraz daiteke, bakoitzaren beharren arabera eta ezinezkoa da eredu bakarra ezartzea ikuspuntu anitzen aberastasunagatik eta elkarrekintza kulturalagatik.

Epilogo

Posible izango litzateke garatzea mota honetako komunikazioa Euskal Herrian?

Esparru txikietan bai, komunikazio-esparru zabal batean zaila ikusten dut. Pertsona bakoitzaren konpromisoa behar da, hau da, bakoitzak bere komunikazio- eskubidea berreskuratzeko nahia eta ekintza azaldu behar du eta gaur eguneko Euskal Herrian, oro har, ez dut uste gerta litekeenik. Gure gizartean, oro har, kazetari profesionaleri lagatzen zaie komunikazioaren esparruen lanketa, gizakiok ez dugulako gure gain hartzen komunikazio-eskubidea. Baina talde, auzo edo elkarteetan guztiz posible ikusten dut komunikazio-mota honen garapena.

Hedabide demokratikoek entzuleak dituzte helburu eta ez hedabideak kontrolatzen dituzten eragin-taldeak. Taldeek, elkarteek eta auzo- edo herri-erakundeek beren hedabideak eduki beharko litzukete. (Basterretxea, 1997:194)

11. Chiapasko "El Avellanal" eta "La Grandeza" komunitateetan erabiltzaileentzako elkarrizketen bidez lortutako informazioa.

12. *Ibidem*.

Bakoitzak bere komunikazio-mota era dezake norberaren egoera sozio-politikoaren arabera. Ezin dugu eredu bakar eta berdin bati buruz hitz egin, talde bakoitzak bere eredia eratzten duelako bizi duen errealitatearen arabera. Adibide bat idaztekoan, Bilboko Txurdinaga eta Otxarkoaga auzoetan bizi diren ijitoak, Bilbon hainbat erakundetan antolatuta dauden etorkinak, antimilitaristak, ekologistak... izan daitezke komunikazio-mota honen erabiltzaileak. Bilgune feministak, adibidez, kritika zorrotza egin die hedabide arruntei, emakumeak isilarazita edo deformatuta ateratzen direlako gehienetan hedabideetan. Bilgune feministak komunikazio parte-hartzailearen eredia bereganatuko balu, emakumeen ahotsa bertan aterako litzateke eta ez hori bakarrik, emakumeek beraiek dauzkaten kezak eta dudak landu eta gainera emakumea albistearen protagonista izango litzateke, gaia aukeratuko lukeelako, gaia landu eta komunikazio-era sortu.

Bibliografia

- Basterretxea, J. I. (1997): *Komunikazioaren eta informazioaren oinarria*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- De Miguel, J. M. (1996): *Cuadernos metodológicos*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid.
- Enszemberger, H. M. (1974): *Elementos para una teoría de la comunicación*, Cuadernos Anagrama, Anagrama.
- Gumicio, A. (2001): *Haciendo Olas*, www.comminit.com/ La iniciativa de la Comunicación.
- Kaplun, M. (1985): *El Comunicador Popular*, Ediciones CIESPAL, Venezuela.
- K. Berlo, D. (1978): *El Proceso de la Comunicación (Introducción a la teoría y a la práctica)*, El Ateneo.
- Martín, J. (1987): "Comunicación, pueblo y cultura en el tiempo de las transnacionales", in Batzuen Artean, *Comunicación y culturas populares en Latinoamérica*, G. Gili S.A, Mexico.
- Mayor, F. (2001-09-02): "Internet y la nueva Sociedad", *El País*.
- Ramirez de la Piscina, Tx. (2004): *Ikus Gaitzazuen*, Zerberri saila, Alberdania, Irun.
- Ramonet, I. (1998): *La tiranía de la Comunicación*, Debate, Madrid.
- Rota, J. (2001eko abendua): "Comunicación y democracia: condicionamientos, funciones y cambios necesarios", *Dialogos de la Comunicación* aldizkaria, Federación Latinoamericana de facultades de Comunicación Social.
- San Cristóbal de las Casasko Elizbarrutia (1999): *III Sínodo Diocesano de San Cristóbal de las Casas, 246 kapitulu*, Pastoral Social, Comunicación, San Cristóbal de las Casas.
- Pasquali, A. (1979): *Comprender la comunicación*, Monte Ávila, Caracas.

www.observatori.org/ Chiapas, conflicto
www.ciepac.com

